Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko azaroaren 11, ostirala — 214 — Viernes, a 11 de noviembre de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*«Ekonomiari eta fiskalitateari buruzko unitate didaktikoan parte hartzen duten unibertsitatez kanpoko ikastetxe gipuzkoarrek fiskalitatean ideia berritzaileak» sariaren oinarri arautzaileak eta 2022/2023 ikasturteko deialdia.*

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2022ko azaroaren 2an egindako batzarraldian, ondoko erabakia hartu zuen:

*Lehenengo.* Onestea erabaki honen I. eranskinean jasotako «Ekonomiari eta fiskalitateari buruzko unitate didaktikoan parte hartzen duten unibertsitatez kanpoko ikastetxe gipuzkoarren fiskalitatean ideia berritzaileak» saria arautzen dituen oinarriak.

*Bigarren.* Onestea aipatutako sariaren 2022/2023 ikasturteko deialdia, erabaki honen II. eranskinean jasotakoaren arabera.

*Hirugarren.* Espedientearen aurretiazko tramitazioa baimentzea, kontuan hartuta, betiere, saria eman ahal izateko ezinbestekoa izango dela Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2023. urterako aurrekontu orokorretan kreditu egoki eta nahikoa egotea dirulaguntza honetatik datozen obligazioei aurre egiteko.

Deialdi honetara hiru mila euro (3.000,00 €) bideratuko dira, eta mila euroko (1.000,00 €) zenbateko gehigarriarekin hornitzeko aukera izango da, guztira lau mila euro (4.000,00 €) osatu arte. Behin 1 0610.110.440.09.01 2023, 1 0610.110.470.00.01 2023 eta 1 0610.110.481.00.01 2023 partidetan kreditua dagoela egiaztatu ondoren, gastua egiteko baimena Ogasun eta Finantza Departamentko foru diputatuak emango du.

*Laugarren.* Erabaki honetan onetsitako oinarri arautzaileek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Erabaki hau behin betikoa da, eta administrazio bidea amaitzen du. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako epaitegietan, bi hilabeteko epean, argitalpenaren biharamunetik aurrera.

Hala ere, horren aurretik, interesdunek aukera izango dute Diputatuen Kontseiluari berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko, hilabeteko epean, argitalpenaren biharamunetik aurrera. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo presuntziozko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2022ko azaroaren 7a.—Laura Gallastegui Amiama, idazkari teknikoa. (6992)

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Bases reguladoras del premio «Ideas innovadoras en fiscalidad de los centros educativos guipuzcoanos de enseñanza no universitaria, que participan en la unidad didáctica sobre economía y fiscalidad» y convocatoria del curso escolar 2022/2023.*

El Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en sesión de 2 de noviembre de 2022 adoptó el siguiente Acuerdo:

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras del premio «Ideas innovadoras en fiscalidad de los centros educativos guipuzcoanos de enseñanza no universitaria que participan en la unidad didáctica sobre economía y fiscalidad», que figuran como anexo I del presente acuerdo.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria correspondiente al curso escolar 2022/2023 del citado premio, que se adjunta al presente acuerdo como anexo II.

*Tercero.* Autorizar la tramitación anticipada del expediente, quedando la resolución del premio condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente para hacer frente a las obligaciones derivadas de dicha subvención en los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el ejercicio 2023.

La cuantía para la presente convocatoria es de tres mil euros (3.000,00 €), pudiendo dotarse un importe adicional de mil euros (1.000,00 €), hasta un total de cuatro mil euros (4.000,00 €). Una vez comprobada la existencia de crédito en las partidas 1 0610.110.440.09.01 2023, 1 0610.110.470.00.01 2023 y 1 0610.110.481.00.01 2023, la autorización del gasto se realizará por el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

*Cuarto.* Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposicion ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 7 de noviembre de 2022.—La secretaria técnica, Laura Gallastegui Amiama. (6992)

EK\CV GAO-I-2022-06992

I. ERANSKINA

*Oinarri arautzaileak*

1. *Xedea.*

Oinarri hauen bitartez arautzen da «Ekonomiari eta fiskalitateari buruzko unitate didaktikoan parte hartzen duten unibertsitatez kanpoko ikastetxe gipuzkoarrek fiskalitatean ideia berritzaileak» saria, zeinaren helburua baita ikastetxe horietako ikasleengan ideiak, sormena eta talentua bultzatzea, zerga obligazioak borondatez betetzeari eta zerga iruzurrari aurre egiteari begira.

Lehiatuko duten ideiek honetara egon behar dute bideratuta:

a) Ikusarazi eta sentsibilizatzera zerbitzu publikoak eta ongizatearen estatua erantzukizunez mantentzen laguntzeak garrantzi handikoa dela.

b) Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean informazio gehiago edo hobea eskaintzera, eta herritarrei beren zerga obligazioak betetzen laguntzeko zerbitzuak sortu, zabaldu edo hobetzera.

c) Iruzurraren aurkako borrokarekin lotuta dauden edo lan hori errazten duten ideia edo tresna berriak proposatzera.

Ideiak idatzizko zein ikus-entzunezko formatuan aurkez daitezke.

2. *Onuradunak.*

2.1. Deialdiaren xede den ikasturtean ekonomiari eta fiskalitateari buruzko unitate didaktikoa ematen duten Gipuzkoako ikastetxeak.

Ikastetxe bakoitzak gehienez bi ideia aurkeztu ahal izango ditu deialdi bakoitzeko.

2.2. Gainera, lehiaketan parte hartzeko, ikastetxe parte hartzaileek ez dute sartuta egon behar martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan jasotako debeku kasuetan, ezta martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa denak, 26. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan jasotakoetan ere eta oinarri hauetan adierazitako gainerako baldintzak ere bete behar dituzte.

Era berean, konpromisoa hartu behar dute betetzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta foru sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateen laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua, hain zuzen ere, Diputatuen Kontseiluak 2018ko urriaren 2ko Erabakiaren bidez onetsi zuena eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak) laguntzen, beken eta dirulaguntzen atarian eskura daitekeena.

2.3. Aurreko apartatuan –2.2. apartatua– adierazitakoa egiaztatzeko, ikastetxe parte-hartzaileak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.

2.4. Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea.

3. *Sariak.*

3.1. Sari hauek izango dira:

— 1. saria: 2.000 euro.

— 2. saria: 1.000 euro.

Hala ere, oinarri hauetako 7.5 atalaren arabera, Ebaluazio Batzordeak 2.000 euroko lehen sari bat eta 1.000 euroko bi bigarren sari ematea proposatu ahal izango du.

3.2. Saritutako ikastetxeek diploma bat jasoko dute lortutako sariaren frogagiri moduan; gainera, ikastetxeen izena eta

ANEXO I

*Bases reguladoras*

1. *Objeto.*

Es objeto de las presentes bases, la regulación del premio «Ideas innovadoras en fiscalidad de los centros educativos guipuzcoanos de enseñanza no universitaria, que participan en la unidad didáctica sobre economía y fiscalidad», con el objetivo de impulsar las ideas, la creatividad y el talento entre el alumnado de dichos centros escolares, en relación con el cumplimiento voluntario de las obligaciones tributarias y la lucha contra el fraude fiscal.

Las ideas a concurso irán dirigidas a:

a) Difundir y sensibilizar sobre la importancia de contribuir con responsabilidad al mantenimiento de los servicios públicos y al estado del bienestar.

b) Ampliar o mejorar la información disponible en la web del Departamento de Hacienda y Finanzas y crear, ampliar o mejorar los servicios de apoyo a la ciudadanía en el cumplimiento de sus obligaciones fiscales.

c) Proponer nuevas ideas y/o herramientas relacionadas o que faciliten la lucha contra el fraude fiscal.

Las ideas podrán presentarse tanto en formato escrito como audiovisual.

2. *Personas beneficiarias.*

2.1. Los centros escolares guipuzcoanos que imparten la unidad didáctica sobre economía y fiscalidad durante el curso escolar objeto de la convocatoria.

Cada centro podrá presentar un máximo de dos ideas por convocatoria.

2.2. Además, para participar en el concurso, los centros participantes no deberán hallarse incursos en ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ni en el artículo 26, apartados 3 y 4, de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres y deberán cumplir con los demás requisitos que se señalan en las presentes bases.

Asimismo, deberán comprometerse al cumplimiento del Código de Conducta y Marco de Integridad Institucional aplicable a ayudas y subvenciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del resto de entidades que integran el sector público foral, aprobado por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral en sesión de 2 de octubre de 2018, que se encuentra disponible en el portal de ayudas, becas y subvenciones (https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/subvenciones) ubicado en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2.3. La acreditación de lo señalado en el apartado anterior 2.2, se efectuará mediante la presentación de la declaración responsable por parte del centro educativo participante.

2.4. La participación en el concurso implica la aceptación de las presentes bases.

3. *Dotación de los premios.*

3.1. Se establecen los siguientes premios:

— 1.er premio, dotado con 2.000 euros.

— 2.º premio, dotado con 1.000 euros.

No obstante, conforme al apartado 7.5 de estas bases, la Comisión Evaluadora podrá proponer que se otorgue un primer premio de 2.000 euros y dos segundos premios de 1.000 euros cada uno.

3.2. Los centros premiados recibirán un diploma acreditativo del premio obtenido; además, el nombre de los centros pre-

EK\CV GAO-I-2022-06992

ideia irabazleen laburpen bat komunikabideetan eta Ogasun eta Finantza departamentuaren web orrian zabalduko dira.

3.3. Lehiaketa honetan parte hartzen duten ikastetxe guztiek, parte hartzeari buruzko diploma bana jasoko dute.

*4. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

4.1. Ikastetxe bakoitzak eskaera bat aurkeztu beharko du, eta eskaera horretan gehienez, lehiatzeko bi ideia jaso ahal izango dira.

Eskaera, gainerako dokumentazioarekin batera, Internet bidez aurkeztuko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan sartuz, laguntzen, beken eta dirulaguntzen atarian klikatuz (https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak) eta hor eskuragarri dagoen formulario betez. Eskaerak eta dokumentazio osagarria aurkezteko, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duen irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak ezarritakoari jarraituko zaio.

4.2. Deialdiari buruzko informazioa eta eskaera egiteko orri normalizatuak aipatutako egoitza elektronikoan kokatuta dagoen laguntzen, beken eta dirulaguntzen atarian eskuratu ahal izango dira (https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak).

Eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Ideiaren laburpena idatzita, gehienez orri batekoa, ideiaren alderdi eta balore nagusiak azaldu eta nabarmenduko dituena. Laburpena aurkeztuko da nahiz eta ikus-entzunezko formatua aukeratu ideia garatzeko.

b) Ideiaren azalpena ondorengo formatuetako batean:

— Idatzizko formatua: memoria, 2. gehigarriaren ereduaren araberakoa. Dokumentuak 5 orrialde izan behar ditu gehienez, DIN A4 formatukoak, Arial letra mota arrunta erabiliko da eta 10 izango da gutxieneko tamaina (azalak, aurkibideak eta irudiak kontuan hartu gabe).

— Ikus-entzunezko formatua: bideoak gehienez 5 minutu iraungo du, ideia berritzailea jasoko du modu argian. Kontu teknikoak direla-eta, bideoa ezingo da fitxero bat erantsita bidali inolako formatutan. Hala ere, bideoa plataforma digital batera igo daiteke (YouTube, Vimeo, Dropbox, Google Drive...). Azken kasu horretan, laburpenaren orrian bideoari dagokion loturaren helbidea jasoko da.

Ideia originala izan beharko da, eta ezin izango ditu urratu jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideak, hirugarrenen datuen babesa edo beste edozein izaerakoa.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, non adierazi behar baita eskatzailea ez dagoela sartuta Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. Artikuluak, ezta martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa denak, 26. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan jasotakoetan ere, onuradun ez izateko aurreikusten dituzten debekuetan.

d) Foru Administrazioak eta haren sektore publikoko entitateek emandako laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua, Diputatuen Kontseiluak 2018ko urriaren 2ko Erabakiaren bidez onetsia, betetzeko konpromisoa.

Aurreko c) letran aipatutako erantzukizunpeko adierazpena egiteko, eskatzaileak deialdian parte hartzeko eskura jartzen den formulario elektronikoa bete beharko du, egoitza elektronikoaren helbide honetan:

https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak.

miados y un resumen de las ideas ganadoras se difundirán en los medios de comunicación, así como en la web del Departamento de Hacienda y Finanzas.

3.3. Todos los centros escolares participantes en el presente concurso recibirán un diploma acreditativo de su participación en el mismo.

*4. Forma y plazo de presentación de las solicitudes.*

4.1. Cada centro escolar deberá presentar una solicitud, pudiendo contener dicha solicitud dos ideas a concurso como máximo.

La solicitud junto con el resto de documentación, se presentarán vía Internet a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, accediendo al portal de ayudas, becas y subvenciones (https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/subvenciones) y cumplimentando el formulario específico disponible a estos efectos. La presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

4.2. La información de la convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en el portal de ayudas, becas y subvenciones (https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/subvenciones) ubicado en la citada sede electrónica.

Junto con la solicitud deberá presentarse la siguiente documentación:

a) Resumen escrito de la idea, con una extensión máxima de una página, que explique y resalte los principales aspectos y valores de la idea. Dicho resumen deberá presentarse aunque la idea se presente en formato audiovisual.

b) Exposición de la idea, en alguno de los siguientes formatos:

— Formato escrito: memoria, según modelo del anejo 2. La extensión del documento no deberá exceder, en todo caso de 5 páginas, en formato DIN A4, tipo de letra Arial normal y tamaño 10 mínimo (sin considerar portadas, índices e imágenes).

— Formato audiovisual: vídeo con una duración máxima de 5 minutos, que refleje con claridad la idea innovadora. Por cuestiones técnicas, el video no podrá enviarse como fichero adjunto en ninguno de los formatos existentes, pero sí podrá subirse a una plataforma digital (p.ej. YouTube, Vimeo, Dropbox, Google Drive...). En ese caso deberá indicarse en la hoja resumen la dirección del enlace en el que se encuentra alojado el video.

La idea tiene que ser original y no vulnerar en ningún modo derechos de propiedad intelectual e industrial, protección de datos de terceros o de cualquier otra índole.

c) Declaración responsable de no concurrir en el centro solicitante ninguna causa impeditiva de la condición de beneficiario de las indicadas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ni en el artículo 26, apartados 3 y 4, de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.

d) Compromiso de cumplimiento del Código de Conducta y Marco de Integridad Institucional aplicable a ayudas y subvenciones otorgadas por la Administración Foral y por las entidades de su sector público, aprobado por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral en sesión de 2 de octubre de 2018.

La declaración de la letra c) se realizará mediante declaración responsable del centro participante en el formulario electrónico de solicitud de participación en la convocatoria del premio que se encuentra disponible en la siguiente dirección de la sede electrónica:

https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/subvenciones.

EK\CV GAO-I-2022-06992

Eta d) letra betetzeko konpromisoa 3. gehigarriaren ereduari jarraituz egingo da, laguntzen, beken eta dirulaguntzen atarian sartuta (https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak).

4.3. Eskaerak aurkezteko epea urteko deialdian zehaztuko da.

4.4. Ogasun eta Finantza Departamentuak beharrezkoak diren dokumentuak kontsultatu edo eskatuko ditu, bitarteko elektronikoen bidez, parte-hartzaileek oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 28.2 eta 53.1.d artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Aurka eginez gero, interesdunak eskaeraren formularioan propio gaitutako laukitxoa markatu beharko du aurka dagoela espresuki adierazteko, eta aurka egotera eraman duten dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

4.5. Ikastetxe parte-hartzailea lehiaketara aurkeztutako ideiaren eduki, mezu edota iruzkinen erantzulea izango da.

*5. Saria emateko prozedura.*

5.1. Sariak elkarrekiko norgehiagokaren prozeduraz emango dira, eta deialdi eta hautaketa prozesu bakarra egingo da.

5.2. Prozedura ofizioz hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

*6. Eskaeren balorazio irizpideak.*

Deialdian aurkezten diren ideiak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

— Proposamenaren sormena eta originaltasuna, eta berrikuntza maila: % 45.

— Gizartearenganako inpaktua (balio erantsia): % 30.

— Teknologia berrien erabilera: % 10.

— Proposamenen aurkezpenaren kalitatea: % 15.

*7. Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.*

7.1. Ogasun eta Finantza Departamentuko Herritarren Arretarako Zerbitzuaren ardura izango da saria emateko prozedura antolatzea eta bideratzea.

7.2. Prozedura bideratzeko fasearen hasieran, eskaeraren aurre ebaluazioa egingo da. Horretarako, parte hartzeko ezarritako baldintzak betetzen ote diren egiaztatuko da.

Eskaerak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak identifikazio daturik ez badu, akatsen bat badu edo osatu gabe badago, eskatzaileari eskatuko zaio, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68.1 artikuluan ezartzen duenaren arabera, hamar egun balioduneko epean antzemandako akatsak zuzendu ditzala edo nahitaezko dokumentuak erantsi ditzala, eta adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, lege horren 21.1 artikuluan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren. Ezin izango dira zuzendu aurkeztutako ideia eta ideiaren laburpen idatzia.

Edonola ere, Herritarren Arretarako Zerbitzuak eskaerak behar bezala ebaluatzeko beharrezkoak diren argibideak eskatu ahal izango ditu.

7.3. Eskaerak Ebaluazio Batzorde batek aztertuko ditu, eta, era berean, ebazpen-proposamen bat egingo du. Bertan, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko da, eta organo eskudunari helaraziko zaio, onar dezan.

7.4. Ebaluazio Batzordeak kide hauek izango ditu: Ogasuneko zuzendaritza nagusiko ordezkari bat, zeina batzordeko pre-

Y el compromiso de cumplimiento de la letra d) se realizará según modelo del anejo 3, disponible en el portal de ayudas, becas y subvenciones (https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/subvenciones).

4.3. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria anual.

4.4. El Departamento de Hacienda y Finanzas consultará o recabará por medios electrónicos los documentos necesarios para comprobar que los centros participantes cumplen con todos los requisitos exigidos en estas bases, de conformidad con lo previsto en los artículos 28.2 y 53.1.d de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, salvo que la persona interesada se opusiera a ello. En tal caso, el centro interesado deberá marcar la casilla específicamente habilitada en el formulario de solicitud para mostrar su oposición expresa y vendrá obligado a presentar los documentos respecto a los que ha manifestado su oposición.

4.5. El centro participante será responsable de los contenidos, mensajes y/o comentarios que contengan la/s idea/s presentada/s a concurso.

*5. Procedimiento de concesión.*

5.1. El procedimiento de concesión de los premios será el de concurrencia competitiva mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.

5.2. El procedimiento se inicia de oficio, mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*6. Criterios de valoración de las solicitudes.*

Las ideas que se presenten a la convocatoria se valorarán de acuerdo con los siguientes criterios:

— Creatividad y originalidad, grado de innovación de la propuesta: 45 %.

— Impacto en la sociedad (valor añadido): 30 %.

— Uso de nuevas tecnologías: 10 %.

— Calidad de la presentación de las propuestas: 15 %.

*7. Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

7.1. Corresponderá al Servicio de Atención Ciudadana del Departamento de Hacienda y Finanzas la ordenación e instrucción del procedimiento de concesión del premio.

7.2. La fase de instrucción se iniciará con la preevaluación de la solicitud, que consistirá en la verificación del cumplimiento de las condiciones establecidas para participar.

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, para que, en un plazo de diez días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21.1 de la citada ley. No serán subsanables el resumen escrito de la idea y la idea presentada.

En cualquier caso, el Servicio de Atención Ciudadana podrá solicitar las aclaraciones necesarias para la correcta evaluación de las solicitudes.

7.3. Las solicitudes serán analizadas, por una Comisión Evaluadora que, a su vez, emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada, y que será elevada al órgano competente para su aprobación.

7.4. Formarán parte de la Comisión Evaluadora un/a representante de la Dirección General de Hacienda, que la presi-

EK\CV GAO-I-2022-06992

sidente izango dena edo, haren ordez, Zerga eta Finantza Politikako zuzendaritza nagusiko ordezkari bat; Erakundeekiko Konpromisoen Zerbitzuaren ordezkari bat; Kontu-hartzailetza eta Auditoretza Zerbitzuaren ordezkari bat; eta Herritarren Arretarako Zerbitzuaren ordezkari bat, batzordeko idazkari lanak egingo dituena.

Ebaluazio batzordea eratzerakoan, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten gizonezkoen eta emakumezkoen ordezkaritza orekatua bermatze aldera, ahal den neurrian, bi sexuak % 40an ordezkatuta egon behar dira gutxienez, hala jasotzen baitu 21. artikuluan martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoak.

7.5. Ebaluazio Batzordeak 2.000 euroko lehen sari bat eta 1.000 euroko bi bigarren sari ematea proposatu ahal izango du, baldin eta sailkapenean bigarren eta hirugarren lekuan dauden ideiek lortutako guztizko puntuazioan ehunetik bost puntu baino gutxiagoko aldea badute.

7.6. Ebaluazio Batzordeak sariren bat eman gabe uztea proposatu ahal izango du, baldin eta lehiaketara aurkeztutako ideiek gutxienez ez badute lortzen gehieneko puntuazioaren % 50.

*8. Sariak emateko ebazpena eta jakinarazpena.*

8.1. Ogasuneko eta Finantza Departamentuko foru diputatua izango da oinarri hauetan jasotako sariak ematea ebazteko organo eskuduna.

8.2. Deialdiaren ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta, argitalpen egunaren biharamunetik hasita, jakinarazpena egintzat joko da lege ondorio guztietarako.

8.3. Sariak emateko prozeduraren ebazpena emateko eta argitaratzeko gehienezko epea sei hilabetekoa da, dagokion urteko deialdiko eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

8.4. Aurreko atalean adierazitako gehieneko epea amaitzerako ez bada jakinarazi ebazpena, interesdunek Administrazioaren isiltasunez beraien eskaerak ezetsiak izan direla ulertu ahal izango dute.

*9. Onuradunen betebehar eta konpromisoak.*

9.1. Ikastetxe onuradunek sariak jasotzeak berekin dakar nahitaez betetzea martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzkoak, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduak, eta diru-laguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarriak ezarritako obligazioak, baita oinarri arautzaile hauetan ezartzen direnak ere.

9.2. Saria jasotzearen ondorioz egiten diren komunikazioetan, materialen edizioan eta hedapen jardueretan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatu beharko da, hala jasotzen baitu Euskararen erabilera normalizatzeko plana Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruan 2018-2022 aldirako onartzen duen 2018ko ekainaren 26ko Diputatuen Kontseiluko erabakiak.

9.3. Hizkera ez-sexista erabili beharko da lehiaketara aurkezten den edo saria hedatzean sortzen den dokumentazio, irudi edo material orotan. Halaber, emakumeen irudi baztertzaileak edo genero estereotipoak erreproduzitzea saihestuko da, eta berdintasunezko balioak sustatuko dira, emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren bidez, batzuk zein besteek modu

dirá o, en su defecto, un/a representante de la Dirección General de Política Fiscal y Financiera; un/a representante del Servicio de Compromisos Institucionales; un/a representante del Servicio de Intervención y Auditoría y un/a representante del Servicio de Atención Ciudadana en calidad de secretario/a de la Comisión.

A fin de garantizar la presencia equilibrada de hombres y mujeres con capacitación, competencia y preparación adecuada en la composición de la comisión evaluadora, se garantizará, siempre que sea posible, y de acuerdo a lo establecido en el artículo 21 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres, que ambos sexos estén representados al menos al 40 %.

7.5. La Comisión Evaluadora podrá proponer que se otorgue un primer premio de 2.000 euros y dos segundos premios de 1.000 euros cada uno, cuando las ideas que ocupan el segundo y tercer lugar en la clasificación, tengan una diferencia inferior a cinco puntos sobre cien en la puntuación total obtenida.

7.6. La Comisión Evaluadora podrá proponer declarar desierto cualquiera de los premios, en el caso de que las ideas a concurso no alcancen una puntación mínima del 50 % sobre el máximo total.

*8. Resolución de concesión y notificación.*

8.1. El diputado o la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas será el órgano competente para resolver la concesión de los premios contemplados en estas bases.

8.2. Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

8.3. El plazo máximo que se establece para dictar y publicar la resolución del procedimiento de concesión de los premios es de seis meses, computados a partir del día siguiente al de la finalización del plazo de presentación de solicitudes de la correspondiente convocatoria anual.

8.4. Transcurrido el plazo máximo señalado en el apartado anterior sin haberse notificado la resolución, las personas interesadas podrán entender desestimadas sus solicitudes por silencio administrativo.

*9. Obligaciones y compromisos de las personas beneficiarias.*

9.1. La recepción de los premios por parte de los centros beneficiarios implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, su Reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril y demás normativa aplicable en materia de subvenciones y a las que se desprenden de las presentes bases reguladoras.

